

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Tere Arregi Letamendi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1932-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Tereren gurasoek Donostiako Mirakruz gaineko Arzak taberna kudeatzen zuten, eta taberna gaineko etxebizitzan jaio zen. Bost anai-arrebatatik zaharrena izan zen Tere. Aita Musakola auzoko Artxubi baserrikoa (gaur galduta) zen, eta ama, berriz, Oñatiko Kale Zaharrekoa. Gerra hasi zenean Oñatira joan ziren senideen etxera hilabete batzutarako. Handik Arrasatera joan ziren eta harrezkeroztik bertan bizi izan zen, Zigarrola auzoan. Bere etxe ondoan zegoen eskolan ikasi zuen sei urtetik hamalaura arte. Eskola denboran auzoko Axerikua baserriko (gaur galduta) umeak zaintzen zituen eta baserriko lanetan ere laguntzen zuen. Eskola bukatu eta Zerrajeran hasi zen lanean. Ezkondu zenean, orduan ohikoa zen modura, lana galdu eta etxean geratu zen. Imanol Mondragon arrasatearrarekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ARR-166

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-07-21
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Donostiatik Oñatira gerratik ihesi

- **Erref:** ARR-166/002
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:19. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoek Donostiako Mirakruz gaineko Arzak taberna kudeatzen zuten, eta ama sukaldaria zen. 1936an, Donostiatik Oñatira joan ziren aitajauna eta amandrearen etxera, gerratik ihesi. 1938an, berriz, Oñatitik Arrasatera bizitzera joan zen familia, Arrasaten errenta merkeagoa zelako. Bost ahizpatik bi Arrasaten jaiotakoak dira.

2. Auzo-eskola, etxe ondoan

- **Erref:** ARR-166/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:09:32. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

Laburpena:

<p>Terek lau urte zituela, Oñatitik Arrasatera joan zen familia bizitzera. Auzo-eskola etxearen ondoko atean zegoen; sei urterekin hasi zen eskolan. Zortzi urte zituela, auzoko Axeri baserrian umezain hasi zen; lo egitera etxera bueltatu ohi zen.</p>

Transkripzioa

- Bueno, ta orduen etorri ga Oñatin ta zu ya hasi za pittin bat gauzakin akordaitten, ezta?...
- Ez, bakarrik...
- O... Etorri ga Arrasatera...
- Bai.
- Bost bat urtekin.
- Bai, bost ez nauen eukiko. Ez dakit, "del treinta y dos al treinta y seis..." lau bat, bost itteko. Bai, ya gero ya hamen.
- Ya. Eta orduen, zu hona etorri ta laister hasiko ziñan eskolan, ezta?
- Ba, eskolia zan aldamenien, "derecha-izquierda". Gure atien beste kaldien eskolak zien.
- Aiba.
- Auzokuek. Eskolie zauen aldamenien.
- Kontxo.
- "Derecha-izquierda" eskolie.
- Ya, ya...
- Eta eskolan.
- Auzoko eskolia, osea etxeko ondoko atian.
- [...] Bai, atian. Hor ibili gitzen eskolan. Denpora askuen ez porke zortzi urtekin fan nitzen Axeikora, hor baserrixe zauen, oin etxi dauena... umezain... Bueno, ez... bai.
- [...] Oseake auzo-eskolia zan hau, oin gauzen lekuen?
- Bai, bai, bai eskolie. Geo, jubilauna egon zan be bai.
- Hemen?
- Hortxe, bai. Aldamenien. Hori in arte.
- Auzoko eskolara, oseake etxe onduan.

- Bai.
- Eta hemendik, eskolara ta... zenbat urtekin jungo ziñan zu?
- Sei urtekin, sei urtekin eskolara, bai.
- Eta umezain hasi aurretik...
- Eskolara faten nitzen, klaro.
- Ta zenbat denpora ibili ziñan?
- Ba, hor be bai! Etorten gitzenien, baiña askotan umiek edo gaixorik zazela edo baserrixen lan asko, ba, lanara fan bihar nitzen! Bueno, lanera! Zainketan, lana ez porke nauen etxien letxe. Porke baserrixe, jente ona. Ez dakizu /eztaitzu/, jente ona.
- [...] Jan ta lo bertan itten zen?
- Ez, ez, ez. Lo itten etxera egunero. Jan ta bertan. Horretxeaittik esaten dot gerra denpora gosie ta... nik goserik ez neban pasau.
- A, klaro. Zu baserrixan, ezta?
- Hor basarrixen ez zeuan goserik.
- Zela eukan izena baserri horrek?
- Axeri.
- Axeri.
- Axeikua.

3. Axeri baserrian umezain

- **Erref:** ARR-166/008
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:11:52. **Bukatu:** 00:12:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Zortzi urte zituela, auzoko Axeri baserrira umezain joan zen. Erosketak egin, behiak zaindu, astoekin errotara joan... ohi zen baita ere.</p>

Transkripzioa

- Ba, etxeko letxe porke jente ona, hobiaurik ezin ez. Ba itten gauen, ba, errekauek ein... Ezauen dendarik auzuen. Errekauek ein, egunen baten behixek zainddu. Eta, ba, astuekin errota fan! Horrek gauzok eitten gauen.
- Eta umezain eta etxeko lanak, ezta?
- Etxeko lanak ez!
- Baserriko lanak?
- Ezta! Lanik ez. Umie zainddu.
- Baina astuakin e...
- A bueno, baiñe... errotara faten gitzen, ba, artue...
- Jo, ixotea...
- Ixotzera.

4. 14 urtera arte Axerikoan eta eskolan

- **Erref:** ARR-166/010
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:12:27. **Bukatu:** 00:13:13

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Axeri baserrian umezain zegoela, ahal zuenean eskolara joaten zen. Eskola oso gustuko zuen. Terek ezin bazuen umeak zaintzera joan, ahizparen bat joan ohi zen bere ordeiz. 14 urterekin, Zerrajeran hasi zen lanean.</p>

Transkripzioa

- Ta orduen, hortik al zebeñien etortten zifñen eskola?
- Bai.
- Egunero iuel ez?
- Egunero igual ez. Askok gustaketan jatan eskoliek neri. Askok, askok, askok. Baiñe bost neska eta badakitzu ze pasatan dan. Danak ezin! Ta ya hamalau urtekin Zerrajeran sartu nitzen. Ta nere aitzie, hurrengokue, ni gaixotu banitzen beste aitzaren bat faten zan umiek zainketan e! Haura zan... desperdiziorik familixan! Ta ya hamalau urtekin sartu nitzen Zerrajeran.
- Baiña
- Ta ezkondu arte.
- Bai, baiña pentsaitten dot... osea hamalau urtekin orduan eskolia ixten xakon, ezta?
- Bai.
- Ta gero zu, orduen, hamalau urte arte e... Axeikuan ta...
- Bai, bai...
- Ibili zifñan Axeikuan, eskola al zebeñien ta hola.
- Bai.

5. Arrasateko dendak

- **Erref:** ARR-166/012
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:14:01. **Bukatu:** 00:17:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Zigarrola auzoan ez zegoen dendarik. Erosketak egitera herrira joan behar izaten zuen. Aixkoranera, Paskualanera, Kukura, Erguin ahizpenera... joan ohi zen erosketak egitera. Erguin ahizpen dendan kafe ederra egoten zen, eta oiloak dendan zehar ibiltzen ziren. Zerrajerako ekonomatoka Erdiko kalean zegoen.</p>

Transkripzioa

- Ta esan dozu gaiñea... Klaro, auzuen ezauela... ezeuela dendarik.
- Hamen auzuen ez. Gero in zauen.
- Eta [...] kalera.
- Herrire. Herrire, bai.
- Ta kalien ze denda eozen garai hartan? Han kalien...
- Ba, ya bastante denda. Bastante denda.

- Zu zeu zein dendatara [...].

- Ainketan ostien lekure.

- A ezaidazu hiru-lau bat aber?

- Ba bat... Ba, ba, Axkoranera edo Paskualanera edo zela da Kukure eta neskazaharrak... Erguiñeko neskazaharrak oiluek eta eukitten zeban mostradorein ta danien.

- Bizirik?

- Bai, bizirik. Kakarixoka... Eta... baiño kafie ta ona eukitten zauen.

- A.

- Eta horren amaginarrebak, Juanjonak, enterau ei xen, ba, hango kafie ta gustaten jakon. Oso kafe, gauza ona zukien. Hauraxe faten nitzen kafetan.

- Oilluak ze eitten eben ba...

- Bizirik, dendan.

- Baiña etxeko oiluak?

- Etxekuek. Beriek. Neskazaharranak.

- Saltzeko ez, oseake hantxe...

- Eurekin bizi zien! Neskazaharrak, Erguinenak, oilo ta guzti! Ondo!

- Eta eurak... kafia eurak erraitten ebain?

- Ez dakit, hori, baiña kafe ederra e!

- Han kafe usaiña egoten zan?

- Ederra.

- Iual eurek aukiko eben kafia...

- Ez dakit, hori ezin neike esan. Por ejemplo, nik dakit Axkorak kafie orduen Ferixanekue dau zauen atzien... Ez dakizu /eztaitzu/ aldatute dau Arrasate. Ta berak erreten zauen kafie han akordetan naz... gaztik gitzela, baiño horrek ez dakit... baiña kafe ona horrek aukitten zauen. Ta Axkora be bai. Axkora be famosue zan, baiña neskazaharrak bizi zien bittartien, neskazaharrak.

- Erguiñekuek.

- Erguiñekuek. Erguiñenak esaten otsien.

- Erguiñenak?

- Bai.

- Bai. Eta kafie bestiek ez zebeu saltzen dendan?

- Ez, beste gauza asko!

- Aaaa... ta eta oiluak han!

- Bai, nik oiluakin akordetan naz.

- Oilluak dendia zainketan.

- Bai, mostradore gaiñien...

- A, bai?

- "Muy felizes" zien. Oso pozik bizi zien.

- Eta horrek, Erguin ahizpa horrek ze ozen... kale etxe baten edo kale baserri baten edo ze?

- Ez, dendie zukien.

- A, dendie. Kale-kalien, orduen.

- Kalien. Hori, goixien. Hori, [...] igo baiño lehenau atzenengoko dendan. Kukuena eta euren. Hantxe dendie. Akordetan naz denda haundi bat zan, patixora gero emuten zauan... Oilluak handik etorri zien, eta... normala zan. Herrixen, normala.

- Dendan sartu eta...

- Bai... oilluek eta... bai.

- Oilluak han lurrien ta...

- Bai, bai... nik baserri... Bai, nik baserritik ohittute ettaten efektorik itten.

- Ya, ya. Eta arrautzak be salduko zittuen orduen?

- Salduko zittuen.

- Klaro, klaro.

- Baiña arrautzetan enoztien bialketan; basarrixan eurek zeukien oilluak eta...

- Oseake Aixkora, Erguiñenak... beste ze...

- Paskualana be bai...

- Kukuena...

- Kukuena.

- Kukuena zer zan? E...

- Kuku...

- Ultramarinosa?

- Bai, oso famosua izan da herrixen.

- Bai, entzun dot. Beste batzuei be entzun [...]

- Bai, eta gero Zerrajeriek zauken, guk etxekuek eta itten gauen Zerrajeriek zeuken ekonomatua...

- Ekonomatua...

- Porta... Erdiko kalien... gero kanbixau zan dana ta handik.

- A, Zerrajerien ekonomatue be kalien euen?

- Bai.

- Nik ez dakit zeaittik pentsaitten nen fabrikak bertan egongo zala!

- Ez! Gero, hamentxe auzuen ipini zauen be bai. Meneta badau ba?

- Bai.

- Hor be Zerrajerian auki zauen gero ekonomatue. "Como..." Eroski.

- Bai, bai, bai.

- Herrixen hasi zan, eta San Antoniñeko piso bajo baten zaukien be bai eitten.

6. Gereziak, akaranak eta sagarrak harrapatzen

- **Erref:** ARR-166/015
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:22:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

1947an, Zerrajeran hasi zen lanean. 17 urte ingurura arte ez zen joaten herrira dantzara. Zigarrola auzoko neskak auzoan bertan ibili ohi ziren, elkarrekin. Gereziak, okaranak eta sagarrak harrapatzen zituzten auzoko baserritarren lurretatik.

7. Ume garaiko entretenimenduak

- **Erref:** ARR-166/016
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:22:05. **Bukatu:** 00:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Ume garaiko entretenimenduak. Sokasaltoan aritzen ziren askotan. Errekara

joan ohi ziren bainatzera. Arrain txikia, karramarroak, ezkailuak... harrapatzen zituzten errekan. Karramarroak potetik ihes egin zienekoa kontatzen du. Terek arrainak harrapatu arren, jaregin egiten zituen. Tereren aita arrantzak eta ehizan ibiltzen zen.

8. Gerra osteko miseria

- **Erref:** ARR-166/017
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Gerra ostean, ez zuen goserik pasa Axeri baserrian umezain zegoelako, baina gauzen beharra sentitu zuen (arropak, oinetakoak...). Tereren ahizpek gosea pasa omen zuten. Aitak Zerrajeran egiten zuen lana, baina ez zuen asko irabazten. Ortua eta untxiak zituzten etxean, eta amak gutxirekin gauza asko egiten omen zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta zuek zeuek... hamen etxien ez zeuen /etzeuen/ orduan estutasunik pasau?
- Miserixie?
- Bai.
- Haundixe. Esaten dozu gurien... aitzak eta esaten daue, bai... Nik goserik ez dot pasau. Gauza askon nesedidie bai; ez dakizu /eztaitzu/, jantzixek, oinetakuek... horretxena bai. Gosie, ez. Enitzen jatune be e... baiñe goserik ez. Baiña gurian aitzak eta bai.
- Bai? Gosia pasau...
- Bai.
- Baina klaro... zu gehixen bat Axeikuan...
- Baserrixen, bai.
- Klaro.
- Baserrixen.
- Ta aittak ze langintza edo euken?
- Zerrajeran za... eitten zeuan lana, baiña asko ez zan ibarazten be, ta bost alaba! Badakitzu, andrie... Ortua be baunkun ta konejo batzuk be bai ipinitte. Eta, ba, zerbait. Gurien ama kozinera ona zan, eta gutxikin be asko atatzzen zauen, baiñe horixe... kostata.
- Ya, ya...
- Lan asko einddekuek danok gero. Lana tokau jaku, baiñe ez zat /ettat/ garbaketan.
- Bai, bai, bai, bai...
- Ez dot garbaketan.

9. 14 urterekin, Zerrajeran lanean hasi

- **Erref:** ARR-166/018
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

14 urte zituela, Zerrajeran hasi zen lanean. 700 lagun inguruk egiten omen zuen lana han, eta hasieran lotsa handia pasa zuen. Zer lan egiten zuen azaltzen du.

10. Emakume ezkonduak ezin lanean jarraitu

- **Erref:** ARR-166/020
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:32:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Lehen, emakume ezkonduak ez zuten lanik egiten. Terek Zerrajeran zortzi urte lanean eman eta gero, lana utzi egin behar izan zuen ezkondu egin zelako. Garai hartan, normala zen emakume ezkonduak etxean geratzea.</p>

Transkripzioa

- Zuk kandaugintzan... ya urte pillatxua ezta?
- Ba in gauen "hasta" ezkondu arte. Ixe... zenbat urte nauen? "En el cincuenta y cinco" urten nauen ya Gabonetan. Eneruen ezkondu nitzen "en el cincuenta y seis"... Horretxek, urte batzuk in nauen. Zortzi edo beratzi edo... Zortzi.
- Bai, hamar igual! "Cincuenta y seis"-ien urten?
- E?
- "Cincuenta y..." zu hasiko ziñan hogeta hama... berrogeita seixan.
- Berrogeta zazpitan.
- Zazpitan.
- "En abril, el 8 de abril". Eta urten nauen e... Gabonetan... "el cincuenta y cinco".
- Zortzi, zortzi urte pasatxo.
- Bai.
- Eta zeatik urten ziñan, ba, ezkondu ziñanian?
- Ba, orduen ezkonduate derrigor urten biher zauen.
- Ezeuen emuten lanik?
- Ezkonduak, kalera. Danak. Ezkonduate ezin zeikien geratu, segi lanien.
- Serixuek Zerrajeran...
- Bai, bai, bai... "Todos fuera". Han matrimonio bat zauen hori legia etorri aurretik ezkonduate, eta enbarazaute zuela be bueno... danak mimau eitten zauen! Eta familixia ta auki ta gero segidu zauen jubilau arte, baiña ezkondu danok "todas a la calle", danok urteten gauen.
- Osea, ezkonketia zan lan barik geraketia?
- Bai, bai. Ya ezin zeiketzun lan ein.
- Ta zuk ze moduz hartu zen zuk hori? Normala pentsaitten xatzun edo...?
- Dana zan... Nere aurrekuek danak zien, normala zan. Ya etxien geraketan zitzen.
- Oseake ez zeuen besteik?
- Ez, ez. Etxeko lanak ein eta etxie... kasu ein.
- Eta umiek ekarri.
- Umiek ekarri.

11. Zerrajerako lan-baldintzak

- **Erref:** ARR-166/023
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:33:08. **Bukatu:** 00:33:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Zerrajerako lan-baldintzei buruz hitz egiten du. Gizonak eta emakumeak lana berdin egin arren, emakumeak ez zuten gizonak irabazten zutenaren laurdenik ere irabazten. Larunbatetan lanera joaten ziren. Langileak Gizarte Segurantzari alta emanda zeuden.</p>

Transkripzioa

- Eta irabazi antzea itten zeuen, gutxiau itten zeuen edo zela zan?
- Oso gutxi. Gizonak eta emakumeak lana berdin eginde... larenik be ez gauen irabazten guk.
- Laurdenik bez?
- Oso gutxi. Eta orduen ez zauen "ni puentes ni sábados...". Beti lanien!
- Eta seguruik eta bazeukotzuen?
- Bai, seguridad soziala.
- Bai. Hasieratik auki zen?
- Bai, bai, bai, bai.
- Seguridad soziala, bai.

12. Zerrajerako lanaz gain, etxean lagundu behar

- **Erref:** ARR-166/026
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:40:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Lagun taldearekin mendira joan ohi zen, baina gutxitan. 20 urte zituela ama hil zitzaion, eta, alaba zaharrena izanik, astean zehar Zerrajeran egiten zuen lana eta etxean ere lagundu behar izaten zuen.</p>

Transkripzioa

- Ta mendira ta hola juateko ohituraik?
- Bai, kuadrillatan bai. Mendira ta bai, baiñe gutxitten e! Klaro, ama hil jaten hogeitaz urtekin... nauketela. Danok hori... familixa haundixe. Ta aste guztien lana indde, lana in biher zan be bai! Erropak eta konpondu in biher zien hurrengoko egunerako! Fabrikarako batie gertie ta gertatu in biher zan, ta petatxue biher bazan betetxue bota! Orduen, "dos por tres" ez zauen /ezauen/!

- Bai, bai, bai...
 - Eta...
 - Orduen, pittin bat zuek hartu zauen etxeko ardurie edo...
 - Klaro. Aitte geratu zan bost neskakin. Bat Oñatire eruan zauen tiak... hori txikiñena, bigarrena Oñatin eon zan... Hori ya Oñatin doie... berrogeita hamar urte bai! Edo gehixau! Gehixau igual. Eta, hori. Ba, ya esta. Astirik bez ezetako be.
 - Ya, ya, ya, ya...

13. Kalera joateko aitaren baimean behar

- **Erref:** ARR-166/027
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:40:03. **Bukatu:** 00:40:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Oñatire atira joaten ziren amaren aldeko familia bisitatzer. Bergarako Pazkoetara joaten ziren, baina ez beti; etxean baimena emandakoan soilik. Kalera joateko baimena eskatu behar izaten zion aitari, ezkondu zen arte. 22:00etarako etxean zeuden beti denak. San Joanetan, berriz, 23:00ak arte zuten baimena.</p>

Transkripzioa

- Baiña bueno batzutan... baiña aukiko zauen preferentzi bat, ezta? Ez dakit nik e... Bergarako Pazkuak edo Arantzazuko Ama Birjiñia edo...
 - A, bai. Bergarara ta bai! Oñatire ta ez. Oñatire ta faten gitzen, baiña familixakue... ez dakizu /eztakitzu/. Ama zan Oñatiku, ba, Oñatire... baiña bestela bai Bergarara, bai. Baiña ez betik e! Permisu emoten bazotzun e... nahiz ta lana ibili e!
 - Oseake, orduan haik eta ezkondu ziñen arte aittari permisua eskatu bihar izaten zotsazun?
 - Bai, bai, bai. Hamarretarako betik etxian gaezen danok. Oin, urten zeiketzun gu... atsaldeko lauretan be bai e!
 - Baiña hogeit urte zittuala be bai?
 - Bai, ezkondu arte ixen!
 - Ezkondu arte?
 - Bai eta... San Juanetan ta hamaikak arte. Oingo gauzak izen bazien!
 - Bai, baiña orduen beste modu batekuak zian. Oseake San Juanetan, ordubete gehixau?
 - Bai, bestela...
 - Bestela, hamarretan.
 - Betik.

14. Aita elizara ez

- **Erref:** ARR-166/028
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:40:56. **Bukatu:** 00:42:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Beste erlijio eta sinesmen batzuk
- Politika » Jarrera politikoak » Sozialistak

Laburpena:

<p>Etxean, sekula ez du arrosariorik entzun. Gerra aurretik Tereren aita oso elizkoia zen, baina gerra denboran ikusitako hainbat gauza zirela medio albo batera utzi zituen elizako kontuak. Aita sozialista zen. Ama joan ohi zen elizara.</p>

Transkripzioa

- Ta aramaittekue ta egoten zan... Zuek esaten ziben orduen bederatzietan ta?
- Ez, ez, ez. Elixarakuk eta ez gara izen.
- A, ez?
- Ez. Nik errosaixue ta etxin sekule ez dot era... entzun. Ta oin elixan... Andra bat juaten jat jubilauetara ta nik iraketan... "Zelan zatoz ba?" ta "nik [...] recuperauta daukat" esaten dotsiet. Abadiak be badaki hori.
- A, orduen rarue da oso familixa gutxi daoiz elizkoixak izan ez dianak / eztianak/.
- Ez, gu ez. Guria aitta...
- Zer zan aitta... aitta sozialistia edo?
- Bai, baiña gure aitta oso elixakua ei zan.
- A, bai?
- Bai, oso lehenau.
- Horrek sozialis...
- Baiña gero gerra denporan ikusi zauen zerbaitzuk hori...
- [...] Ya ahaztu zittun gauza horrek ezta?
- Bai, bai... baiña ez zan... nik bestela politikan gurian aitta ez dot ikusi. Ez.
- Baiña berak ze... ze joera eukan?
- Ez, ez oskun esaten elizara ez fateko e!
- Bai, bai... baiña...
- Bera ez zan fango.
- Bera ez zan /etzan/ faten?
- Ez. Gu danok elixatik ezkonduete gaz, ta bea aittepunteko fan da be bai. Ez oskun esan sekula ez fateko e! Sekule bez.
- Baiña bea [...]
- Ama, bai. Ama, bai. Ama elixakua zan. Bueno elixa faten zan

15. Ama atxilotu zutenekoa

- **Erref:** ARR-166/030
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:43:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Gerra denboran, Oñatiko bizilagun batek Tereren ama salatu zuenekoa kontatzen du. Kuartelean zela, Donostian bizi ziren garaitik ezagutzen zituen militar batzuei esker aske utzi zuten ama.

16. San Isidron ezkondu

- **Erref:** ARR-166/033
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:48:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

San Isidron ezkondu zen, eta auzoko elkartean egin zuten bazkaria. Bazkaritzan, sarrerakoak, legatza, oilaskoa eta postrea jan zuten. Lehen, ezkontzetan ez zen dantzaldirik izaten. Eztei-bidaian, Donostian eta Bilbon ibili ziren. 10 eguneko bidaia egin zuten.

17. Villafrancako kondea eta Zigarrola

- **Erref:** ARR-166/036
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:57:55. **Bukatu:** 01:01:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Zigarrolako etxean errenteroak ziren. Etxean argia, ura eta komuna zituzten. Etxea Villafrancako kondearena zen, eta urtero joaten zitzaien bisitan. Etxea erosi zuteneko garaiaz hitz egiten du. Kondeak lur ugari zituen Zigarrolan.

18. Zigarrolako garbitokia

- **Erref:** ARR-166/037
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 01:01:37. **Bukatu:** 01:02:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Arropak garbitokian garbitzen zituzten. Arropak "barrinoian" hartu, xabondu eta garbitzen zituzten. Gero, ortuan zituzten alanbreetan esekitzen zituzten lehertzeko. Garbitokian zortzi harri zeuden, eta astero aldatzen zuten bertako ura.

19. Deabruak euskaraz ikasi ez eta...

- **Erref:** ARR-166/038
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:44. **Bukatu:** 01:04:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Behinola, Zigarrolako garbitokian sei emakume ari ziren arropa garbiketan. Haietatik hiru euskaldunak ziren (tartean Tereren ama eta oñatiar bat), eta euskaraz ari ziren berriketan. Beste emakume batek galdegin zien ea zergatik ez zuten gaztelaniaz hitz egiten. Oñatiarrak zer erantzun eman zien kontatzen du.

20. Garbitokiko giroa

- **Erref:** ARR-166/039
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 01:04:02. **Bukatu:** 01:04:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Garbitokian zer giro sortzen zen kontatzen du. Kontuz ibili behar izaten zen politika kontuez hitz egiterakoan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com